

Funtsezko jarduerak



ENDERTEKA NEGOZIO EREDUA



Zein dira egin behar ditugun gauzarik garrantzitsuenak gure proiektuak funtziona dezan?

Gure enpresak hainbat jarduera burutu behar ditu proiektuak funtziona dezan. Alde batetik, **zerbitzua prestatu** edo ekoitzi. Bestetik, egon daitezken **arazoak konpondu**. Eta, azkenik, **sareko jarduerak** burutu.

Zerbitzua prestatu

Kontzentrazioa eta kalifikazioak hobetzea helburu duen liburutegi bat irekitzean, funtsezkoa da produktuen eta **zerbitzuen aukeraketa zaindua** egitea, gure helburuak bete daitezen.



Arazoak konpondu

Edozein enpresetan gerta daitekeen bezela, gurean ere **arazo puntualak** egon daitezke, horren aurrean, gure taldeak arazoei aurre egiteko ahalegina jarriko du. Arazoek inolako kostu bat izango balute ere, kostu egituren atalean ageri den bezala, 500 euroko aurrekontua izango dugu, erabiltzeko prest.



Sareko jarduerak

Sareko jarduera guztiak pertsona bakar batek eramango ditu, bai **sare sozialak** zein **webgunea**. Lankide horrek, teknologiaren munduan erraztasunak izan beharko ditu, izan ere, horiek izango baitira gure **difusio kanalak**.



Orduan, negozio eredu bat sortzea ez da hain zaila, ezta?

Negozio eredu baten atal guztiak era **argian** eta **ordenatuan** azaltzea ez da batere erraza. Enpresa bat sortzeak, **denbora** eta **pazientzia** eskatzen du, beraz, pixkanaka hobetzen joango gara ekintzailearen munduan!